

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI  
324 - 2024ko MAIATZA



Elikagai bilketa

**GOGOR**

lan guzian defektu ia botaketa

ELIKADURAREKIN  
NEGOZIORIK EZ



## POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisterei bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) / 638 652 339.

## ZUZEN ETA JATOR

### Bera ala berdina?

Ez dira gauza bera *autobus berdinean etorri ziren* eta *autobus berean etorri ziren*. **Berdin** elkarren antza duten bi gauza edo gehiagori erreferentzia egiteko erabiltzen da; **bera**, berriz, gauza bakar batez ari da. Ikus adibidea:

- ▶ *Zure amak* eta nireak auto berdina erosi dute > auto igualak erosi dituzte; bi auto daude aipamean, bakoitzak berea erosi du.
- ▶ *Zure ama* eta nirea auto berean etorri dira > auto bat besterik ez dago eta biak auto horretan etorri dira.

Horrela, bada, esaldi hauek ez dira zuzenak:

- ▶ *\*Egun berdinean joan ziren oporretara* (>egun berean).
- ▶ *\*Eskola berdinean ikasten dute* (>eskola berean).
- ▶ *\*Atzoko mutil berdina etorri da* (>mutil bera).

Izen abstraktuekin, ordea, lausotu egiten da aldea. Batzuek biak onartzen dituzte: *lan bera egin dute/lan berdina egin dute; atzoko tenperatura berdina/atzoko tenperatura bera; iritzi bera/iritzi berdina; kolore bera/kolore berdina*.

Nolanahi ere, desegokia da *\*berdina esan* esapidea; modu egokia *gauza bera esan* da.



## MAILOPE

- MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

- ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkartea. L.G.: NA 719/93 Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. [issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

- ERREDAKZIOA: Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

- ARGAZKIAK: Teresa Mariñelarena, Garazi Moreno, Maite Lasarte, Eva Fernández, Ainhitze Martirena, Uxue Etxarri, Asier Arsuaga, Mikel Martirena, Asier Albiasu.

- PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

- MAKETAZIOA: Noé Lopez Albizu

- TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT  
MULTIMEDIA

## AURKIBIDEA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 ▶ MAITE DITUT MAITE Oderitzetik Lekunberriko bidea Iturraskarritik

08 ▶ ELKARRIZKETA Ainhitze Martirena (Uitz)



12 ▶ BATZARRE

14 ▶ ERREPORTAJEA Antolatutako Elkartasun Potentzia




18 ▶ KULTURA

22 ▶ KIROLA Beteluko areto futbol taldea



28 ▶ PLAZATIK PLAZARA Libia Mejia Messa (Kolonbia)



31 ▶ AGENDA



**Amalur Bravo López**  
Maiatzaren 19an, 12 urte. Zorionak, Amalur! Egun polita izan eta besarkada handia etxekoen partez.



**Amets Urkola Estanga**  
Maiatzaren 16an, 5 urte. Zorionak, Amets! Amatzok, attek, Xuak, atton-amonak ta izeba-osabak asko matte zattugu. Muxu handi bana denon partetik.



**Elaia Iriarte Olano** Apirilaren 20an, 7 urte. ZORIONAK, printsesa! Ongi ongi pasa zure eguna. Elkarrekin ederki ospatuko dugu. Muxu potoloak etxekoen partez!




**Ane Etxeberria Arginarena**  
Maiatzaren 22an, 7 urte. Zorionak, Ane! Ongi pasa zure egunean eta jarraitu orain arte bezain alai eta jator. Muxu erraldoi bat denon partez.



**Izaro Gamayo Garay**  
Maiatzaren 26an, 2 urte. Zorionak, Izaro! Muxu eta besarkada pila etxekoen partez. Asko maite zaitugu!

**Peru Esnaola Sotil**  
Maiatzaren 26an, 7 urte. Zorionak, Perutxo! Ongi pasa zure urtebetetze egunean eta aupa zu. Muxu handi bat familiaren partez.



**Naroa Elordi Ilaregi**  
Maiatzaren 11n, 13 urte. Zorionak! Egun ederra pasa. Ongi ospatu eta ongi pasa zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat, asko maite zaituen familia guztiaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago! Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**BIDEGOXO JATETXEA**  
Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak  
Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com


**CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.**  
HIRUROK S. VETERINARIOS  
Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**MALLOAK**  
ARTZAI GAZTAK  
Garaia Martineza GARTZA, Rufina  
Idatzabal 101. 489 472 057 + faxa: 940 511 057  
malloak.com | info@malloak.com



## HAIZETE ARRISKUA BEIGORRIN

Beigorriko parkean haizearen ondorioz zuhaitz baten adarra erortzeko arriskuan zegoen. Lekunberriko udaleko langileek ingurua hesitu eta goiz batean adarra moztu dute. Zorionez, ez da ezbeharrik gertatu eta arazoa konpondu dute.



## ARROPA ETA OINETAKOEN BILKETA

Mendialdea Mankomunitatean, Traperos de Emausek kudeatzen du bertako arropen eta oinetakoen bilketa. Ohiko bilketa aste-oro izaten da, baina hilabete hasieran hainbat arazo izan dituzte eta ez dute bilketa egin. Horren ondorioz, gomendagarria da edukiontzia beteta badago, kanpoan arropa poltsarik ez uztea.



## HERRI BARATZEAK SORTZEKO BIDEAN

Lekunberriko herri baratzeak martxan jartzeko prozesua abian da. Zintzur eta Soroeta kaleetako lur publikoetan baratzea egiteko lur-sail bat eskatu dute hainbat auzokidek, eta horren ondorioz, udal-letxean egin da ideia eta eskaera desberdinak proposatzeko bilera.

## ► Garazi Moreno Blas (Aldatz)



*Nire pasio ezkutua bada entzutea ahal dudan guztiari eskua luzatzea. Berdin dio emakume, gizon heldu, gaztea maite baitut nik eta denon integratzea.*

*Mila arazo munduan jendeak du gosea askok nahiago dute ez begiratzea. Nire bihotzak dio lanean jarraitzea ta gustoko ez duenak ez begiratzea.*

Doinua: Maritxu nora zoaz. Hurrengoa: Haizea Goñi (Lekunberri)



## LIBURUTEGI MUGIKORRAK, LANDA-EREMUKO GARAPENERAKO TRESNA ERAGINKORRAK

Pasa den martxoaren 21ean, Nafarroako Gobernuak premiatu genuen liburutegi mugikorraren zerbitzua bultzatzen jarrai dezan, 2030a baino lehen landa-eremuetako herritar guztiak eskura izan dezaten funtsezko zerbitzu publiko hori. EH Bildu taldeak aurkeztutako ebazpenak aldeko 48 boto eta 2 abstentzio (VOX-eko bi ordezkariena) jaso zituen, Nafarroako Parlamentuko osoko bilkuran.

Liburutegi mugikorraren afera ez da gauza berritzailea, baina gaurkotasan eta garrantzi handiko gai bat da. 1857an, The British Workman egunkariak dokumentatu zuen Kunbriako konderriko liburutegi mugikorrari buruzko lehen kasua, Ingalaterrako ipar-mendebaldean. George Moore filantropo eta merkataria ingelesak sortu zuen, "literatura ona herri barruan zabaltzeko", zaldi-gurdi bidez.

Aipatutako honen modura, hamaika adibide aurki ditzakegu munduan zehar. Baina Nafarroa Garaiko azken hamarkadetakoa esperientziara itzuliz, 1998ra jo behar dugu. Urte horretan, Aurizberriko liburutegi mugikorra edo "Biblioneta" martxan jarri zen. Martin Saragüeta liburuzaina Pirinioetan atez ate liburuak banatzen hasi zen eta, proiektu xume hark, erreleboa izan du. 25 urte baino gehiago bete ditu eta Estatu mailako "Maria Moliner" lehiaketa ospetsuan lehenengo saria ere irabazi zuen 2016an.

2020. urtean Lizarraldeako bibliobus proiektua garatzen hasi zen, eta urte berean, halaber Leitzako liburutegian "Liburutegi Ibiltaria" proiektua sortu zuen

Harkaitz Delgado liburuzainak. Hala, zerbitzua jendeari hurbiltzeko liburuzainek izan duten borondateari eta bokazioari esker, Nafarroa Garaiko landa-eremuan 85 herritara iristen dira liburutegi mugikorrak, eta guztira 12.600 biztanlek jasotzen dute.

Garai eta paraje ezberdinetako adibideek argi erakusten dute: liburutegi mugikorraren zerbitzua tresna eraginkorra da oinarritzkoa den zerbitzu publiko hau herritarrengana hurbiltzeko, despoblazioaren aurka borrokatzeko, irakurzaletasuna sustatzeko, pertsonen sormena eta gaitasun kritikoa indartzeko, arrakala soziala murrizten laguntzeko eta lurraldearen kohesioa bultzatzeko.

Norabide honetan aurrera egiteko, 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako akordioan ekarpena egin du EH Bilduk, funtsezkoa iruditzen baitzaigu zerbitzu hau indartzen eta zabaltzen jarraitzea. Eta onartutako ebazpenak, konpromiso politiko berri bat suposatzen du. Nafarroa osoko landa-eremua kontuan hartzea esan nahi du, modu progresiboan eta arrazoizko epe-muga zehatz batekin, oinarritzko zerbitzu arrakastatsu hau nafar guztien esku egon dadin.

**Mikel Zabaleta Aramendia**  
EH Bilduko parlamentaria

Hurrengo:  
Maddi Uharte (Baraibar)



**Uxue Etxarri (Oderitz)**

# maite ditut maite gure bazterrak

## Oderitzetik Lekunberriko bidea Iturraskarritik

**Ibilbidea:** joan-etorria  
**Distantzia:** 9,52km  
**Desnibela:** 123m  
**Zailtasuna:** erraza



### Bidea:

Oderitz herritik Lekunberriantzerrepedetik hasita eta berehala ezkerretara joan behar da, kartel horia jarraituz eta mendian sartuz (1). Bertan marra horiei jarraitu behar dira.

Bidean trikuharriak ikusi daitezke eta bidetara jarraitzeko dena kartel eta marka horiekin ongi markatuta dago.

Hirugarren trikuharria ikusi ondoren, bidetara jarraituta zelai baten parera iritsiko gara eta bertara sartuko gara (2). Hau gurutzatu eta harrizko pista zeharkatuz berriro mendiko bidean sartuko gara (3). Hortik aurrera Astizko garbategira iritsi arte marka horiei jarraituko diegu.

Garbategira iristean eskuinetara hartu eta herriraino iritsiko gara. Herria zeharkatu eta aterpera iritsitakoan errepedera joan beharrean gorantz jarraituko dugu. Herria bukatzean harrizko pista batean sartuko gara langa bat zeharkatuz (4) eta aurrera jarraituko dugu.

Pistaren erdian, eskuinetara hartuko dugu mendirantz sartuz berriz (5) eta Mendukiloko errepederaino iritsiko gara (6). Bertara iristean, errepedetik joango gara eta Allira iritsi aurretik eskuinetara hartuko dugu harrizko pista batetik joanda (7).

Hau aurrerantz jarraituko dugu eta bidegurutze batera iritsiko gara Mugiroko presara jaisteko (8). Aldapa behera jaitsiko gara eta Plazaola bideraino iritsiko gara presako zubia gurutzatu ondoren. Hortik aurrera arazorik gabe bide berdea jarraituz Lekunberriaino iritsiko gara.

**CONSTRUCCIONES**  
**ERAIKUNTZAK**  
**CONSTRUCCIONES**  
**URANGA/SAIGÓS, S.L.**

**TEILATUAK**  
**FATXADAK**  
**ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA**  
**665 708 683**  
Lekunberri

**ERREABILITAZIOAK**  
**IGELTSERITZA**  
**FATXADAK**  
**TEILATUAK**

**Construcciones**  
**Gañarbe**

Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540  
construccionesganarbe@gmail.com 636 827 846

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA**  
**ARLOETAKO HORNIGAIK**  
**BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

**URZUBI S.A.**  
Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20  
Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**TAXI**  
**SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



## “Bakoitzak bere gustura pertsonalizatu dezake, usaia eta kolorea aukeratuz”

Uitziko Ainhitze Martirena artistak eskuz egindako kandela liluragarriak egiten ditu. Naturarekiko duen harremana aipagarria da eta eskaintzen dituen produktuetan nabarmentzen da. Hainbat forma, kolore eta lurrin goxoetako kandelak sortzen ditu, eta etorkizunerako ideia berriak dauzka buruan.

### Noiz sortu zenuen Argizpi, nola bururatu zitzaizun?

Duela urte bat sortu nuen, 2023ko ekainean. Izan ere, kandelak betidanik gustatu izan zaizkit; orduan, pixka bat begiratzen hasi nintzen. Ikusi nuen supermerkatu askotan saltzen dituzten

kandelak toxikoak direla eta etxean egiteko aukera desberdinak aztertu nituen. Irailean amaitu nuen nire aurreko lana eta bukatu baino lehen, kandelak egiten hasi nintzen, amaitu bezain laster mundu honetan murgiltzeko eta kandelak saltzen hasteko.

### Nola bururatu zitzaizun izena?

Pentsatzen hasi nintzen eta ez dakit, burura etorri zitzaidan bat-batean. Argi eta izpiren nahasketa da, ez zen bilatzen nuen zerbait, momentuko ideia izan zen. Beranduago, nire ahizpa Olatzi mezu bat bidali nion bere iritzia jakiteko eta berari ere izena gustatu zitzaionez, ba, aurrera!

### Zerk erakarri zintuen kandelak egiteko eskulangintza mundutik?

Azkenean usainak betidanik asko gustatzen zaizkit eta egun batean, supermerkatuko kandela toxikoei buruz hitz egiten hasi nintzen gurasoekin. Beranduago, mugikorrean bideoak agertzen zitzaizkidan eta ikusten hasi nintzen. Etengabe ikusi, ikusi eta ikusi, kandelak egiten saiatzea erabaki nuen.

### “Supermerkatuetako kandela asko toxikoak dira”

### Zer produktu eskaintzen dituzu?

Alde batetik, kandela usaintsuak dauzkat, ontzi desberdinekin, bakoitzak bere gustura pertsonalizatu dezake, usaina eta kolorea aukeratuz. Beste aldetik, argazki batekin tabletaren bidez eskuz ilustratutako pegatina bat egin eta bertan pegatuta sortzen ditudan kandelak ere egiten ditut. Eta orain, gauza berriak sortzen ari naiz, horien artean: erretxinazko erretiluak, gero aurrerago ere asmoa dut ambientadoreak eta aromaterapiako kandelak egiteko. Azken horiek eragin handia daukate osasunean. Usain bakoitzak eragin desberdin bat dauka, terapeutikoa, orduan, poliki-poliki gauza berriak sortzen nabil. Azkenik, eskari handiagoak egiteko aukera ere eskaintzen dut, edozein ekitalditarako:

### “Azkenean, momentua zela sentitu eta kandelak egiten hasi nintzen”

jaurnatzeetarako, ezkontzetarako, urtebetetzeetarako, etab.

### Nolakoa da zure prozesu artistikoa kandela bat sortzerakoan?

Kandelak pertsonalizatuak izanda, momentuz ezin dut etxean hauen “stock” bat izan, ze hain pertsonalak direnez, agian eskatzen didaten momentuan ez daukat kandelarik eskatutako usain eta kolorearekin. Baina adibidez, orain feriarako kandelak egin behar ditut eta horiek momentuan sentitzen dudaren arabera sortzen ditut. Argizaria bota eta nahasketak egiten hasten naiz, usain berriak probatzen eta nahasten, lore desberdinen nahasketaren emaitzak probatzeko. Momentuan sortzen noa, orain azoketarako egiten ditudan kandela horietan askatasun handiagoa daukat, norbaitek eskaria egitearen zain egon beharrean. Azokarekin aukera gehiago ditut bururatzen zaidan guztia egiteko eta esperimentatzeko.

### Kandela poteen diseinu pertsonalizatuak ere egiten dituzu, zein da prozesua?

Lehenengo argazki bat bidaltzeko eskatzen diet interesa dutenei, batzuetan pertsonena, animaliena edo edozein argazki. Ondoren tabletara pasatzen dut eta marrazkia eskuz egiten dut. Gero argazkia bidaltzen diet gustuko duten jakiteko eta gero makina bat daukat biniloak forma horrekin mozteko. Tabletatik makinara pasa eta gero, binilo hori edalontzi karratu batera pasatzen dut eta argazkia hori itsasten dut. Erretxinazko erretiluetan ere, aurrerago argazkiak jartzea gustatuko litzaidake, baina momentuz



Eskuz egindako kandelak eta erretxinaz egindako bandejak  
Argazkia: Ainhitze Martirena

probatzen ari naiz. Prozesu guztiaren denbora eskariaren arabera izaten da, argazkiaren kalitatea ona bada, marrazkia azkar egiten dut, baina ez bada ongi ikusten pixka bat gehiago kostatzen zait, irudia xehetasunez marraztu behar delako. Presa handiarekin eskatzen badidate egunean bertan egiten saiatzen naiz, baina ez da ohikoena. Gutxi gorabehera bi edo hiru eguneko lana izaten da, lehortzen egun bat uzten dudalako hurrengo egunean kaxan sartzeko.

### Argizari eta material berezirik erabiltzen duzu?

Bai, sojazko argizaria erabiltzen dut, %100 naturala da. Produktu ekologikoak erabiltzen saiatzen naiz, usainak

eta koloreak ere naturalak dira, metxak egurrezkoak eta kotoizkoak dauzkat. Erabiltzen dudana guztia naturala eta ekologikoa da. Gainera, poteak aluminiozkoak edo kristalezkoak dira, bietatik dauzkat.

### Zure produktuek kontsumo jasangarriaren aldekoak dira?

Lehen aipatu ditudan materialez aparte, kandelak biltzerakoan kaxa kartoizkoa da, zedazko papera eta erlauntza forma daukana abaraska papera ere erabiltzen ditut. Azkenean ez dut plastikorik ez antzeko ezer manipulatu. Kandela eta biltzeko materiala dena ekologikoa eta naturala da.



Ainhitze, kandela bakoitza azaltzen  
Argazkia: Ainhitze Martirena





Eguzki-lore kandela.  
Argazkia: Ainhitze Martirena

#### Kandelak sortzeko metodologia berezirik erabiltzen duzu?

Egia esanda ez, azkenean kandelak sortzeko argizaria perla moduan etortzen da, orduan urtu eta gehienbat tenperatura eta gramoak gainbegiratzea da teknikoki nire ustez garrantzitsuena.

#### Kandelak apaintzeko teknika desberdinekin esperimentatu duzu? Adibidez?

Koloreekin, askotan, kolore tanta bat bota eta edalontziari buelta ematerakoan marmolaren antzera gelditzen da. Hemengo arrosekin ere esperimentatu dut, petaloak hartu eta lehortzen utzi ondoren kandelari gehituz, baina orain eginak eskatzen ditut.

#### “Bakartzen nauen mundu bat da, nire mundua”

#### Zein da sortutako kandeletako lurrin gustukoena?

Ez dakit zein esan, hainbeste dauzkat! Agortzen zaizkidanean berriak eskatzerakoan usai desberdinak ikusi eta berri gehiago ekartzen ditut, 17-18 usain desberdin dauzkat. Orduan, ba ez dakit! Ekarrirako azkenekoetatik orkidearena oso goxoa da eta lore leherketarena ere asko gustatzen zait, baina egia esan, denak oso goxoak dira, ez daukat gogokoen bat. Jendeari adibidez asko gustatzen zaio arropa garbiaren lurrina.

#### Sortzen dituzun kandelaren diseinuetatik zein gustatzen zaizu gehien?

Eguzki-lore kandela, guretzat esanahi sakona daukalako. Ikusten da hori dela gehien saltzen den kandela, zerbait berezia da.

#### Eta zein dira sortzen dituzun kandeletatik ospetsuenak?

Alde batetik lehen aipatu dudana, eguzki-lore. Beste aldetik, moldeetako kandeletatik ipotxaren forma daukana, baita hartzaren itxura daukana ere, bi horiek dira gehien saltzen direnak.

#### Nolako izan da komunitatearen erantzuna?

Hasieran familiak besterik ez zizki-

dan kandelak erosten, gero hortik zabaldu eta lan egiten nuen klinikan saltzen hasi nintzen, beranduago, ferriekin kanpokoak Argizpi ezagutzen hasi dira, eta sare sozialetan egin nuen zozketa baten bitartez geroz eta gehiago zabaltzen ari naiz. Nire ingurukoak banantzen dutenean asko nabaritzen da eta sare sozialetatik jendeak idazten dit. Azkenean mugitzea da garrantzitsuena, etxean gelditzen banaiz ezer egin gabe ez da inora zabaltzen, orduan orain hasi naiz mugitzen eta zabaltzen.

#### Izan duzu zailtasunik Argizpi sortzeko prozesuan?

Web orriarekin bai izan nituela arazoak. Orain egin dut web orri berri bat. Hasieran ez ulertzearekin lehengo harrapatu nuen orrialdean sartu nintzen eta ez zen hemengo, ingelesa zen. Ondorioz, ezin izan nituen ordaintzeko metodoak sartu eta kandela bat eskatzerakoan Bizum bidez eskatzen egon behar nintzen eta ez zen oso eroso. Gehienbat hori, web orri zaharrarekin sortutako arazoak izan dira zailtasun handienak, baina dagoeneko orrialde berri bat daukat eta oso ongi doa.

#### Zure laneko ze alderdi gustatzen zaizu gehien?

Kandelak egiten hasten naizenean



Lore Itxurako kandelak eta erretilua  
Argazkia: Ainhitze Martirena

gainerako guztia ahazten zait, azkenean asko erlaxatzen nau. Kandela pertsonalitatean marrazten hasten naizenean ere kontzentratu eta inguruko guztia desagertzen da.

#### Zerrek motibatzen zaitu sortzaile izaten jarraitzera?

Azkenean gustatzen zaidana zerbait da eta, momentuz, beste lanik gabe nago. Orduan gogoko zerbait egitea oso garrantzitsua iruditzen zait, ingurukoekin, familiakoekin eta ezagunekin, hori partekatzea eta aldi berean, denok lan horrekin gozatzen ikusteak betetzen nau.

#### Etorkizunerako proiektu edo kolaborazioa berezirik duzu buruan?

Printzipioz ez, jarraitzea. Egia da produktu berriak buruan dauzkadala. Interesgarria izango litzateke horiekin hastea, aurrera eramaten saiatzea, web orrian sartuz eta eskainiz. Etxean lantoki txiki bat egiteko intentzioa daukat, txukunagoa, bertan lan egite-

“Ingurukoentzat eta niretzat onuragarria den lan polit bat dela uste dut”

ko, baina poliki-poliki. Aurrerago, Argizpi zabalduagoa dagoenean hasiko naiz gauza gehiago pentsatzen.

#### Zerbait gehiago aipatu nahi duzu?

Jendea kandela natural eta ekologiko hauek probatzera animatzea gustatuko litzaidake. Azkenean supermerkatutako kandela asko petrolioarekin egiten dira, orduan horri su ematerakoan hori arnastea ez da gomendagarria, zerbait toxikoa da. Web orria ([www.argizpi.es](http://www.argizpi.es)) edonorrentzat eskuragai dago, produktu desberdinak begiratzeko eta, bestela mendialdeko azokan ere egongo naiz, hilabetero herri batean, bertara hurbiltzera animatzen dut jendea, kandelak ikusi eta usaintzera.

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

AMAIRU BAR  
GITXKO PIZZAK,  
KOPA BEREZIAK  
948504352

Antzonia  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
[www.antzonia.com](http://www.antzonia.com)  
Ustegi (Araitza)

NEKAZARI, S.L.

Kubota  
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

aseguru  
gintza  
XXI

ASEGURU  
AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna  
baberesteko modu bakarra  
behar bezela aseguratua  
egotea da

▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)  
▶ 943 65 22 20  
▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400  
Tolosa

HOSTAL  
BETELU

Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta  
pizza goxoak

Erreserbak:  
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Atabal  
ohindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etxez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
948513151





### KIMU BERRIAK ERNATZEN

1990. urtean sortu zen Mailope bertako albistek jaso eta euskara sustatzeko. Gaur egun, Araithz, Betelu, Lekunberri eta Larraungo albisteen berri emateaz gainera, eskualdeko herritarrok batzen gaituen proiektu bat da. 90. hamarkadatik asko aldatu dira gauzak eta, apirilaren 26an, Mailope aldizkariari buruzko batzar nagusia egin zen Araizko udaletxean, herritarren nahiak eta iritziak jasotzeko eta kimu berriak ernatzeko. Etorkizuneko Mailope guztion artean osatzea ezinbestekoa da eta hurbildu ziren guztien parte-hartzea benetan garrantzitsua izan da. Bertan proposamen eta ideia berriak mahai gainean jarri eta horri esker, etorkizunerako ikuspuntua zabaldu da.



### EUSKAL HERRIKO ITZULIA

2024ko edizioaren 3. etapa (Ezpeleta - Altsasu), luzeena izan da, eta, gainera, sei mendate puntuagari izan ditu. Ia geldiegi egotetik Otsondo igotzeari ekin zioten txirrindulariek. Uitzira iritsi ziren apirilaren 4an, 14:34rak aldera, ondoren Lekunberriera jaitsi eta jarraian Alli, Astiz, Oderitz eta Madotzen amaitu zuten ibilbidea gure bailaran. Etapa honetako lehenengo postua Quinten Hermans, belgikarrak eraman zuen, bigarren postua Edoardo Zambanini, italiarrak, eta hirugarren postua Alex Aranburu, gipuzkoarrak.



### EUSKARAZ, BAI!

"Euskaraz, bai!", aisialdiko jarduerak bat da, haurrek euskararekiko duten hizkuntza erabilera ohituratan eragiteko helburuarekin bideratzen dena. Euskara Zerbitzuak jarri zuen martxan 2023 urtean, PAUMArekin elkarlanean. Lagunartean jolasten ari direla, euskaraz modu naturalean jolasteko testuingurua eskaintzen zaie haurrei, eta oharkabean barneratzen dute hizkuntza eta haien artean euskaraz aritzeko ohitura. Hilean behin egiten dira eta Larraungo herri ezberdinetan burutzen dira, apirilaren 20ko saioa Errazkinen burutu zen: "Munduko jolasak" saioa izan zen. Guztira 21 umek parte hartu zuten. Maiatzaren 18an Arruitzen egiten da hurrengo geraldia: "Arbasoek erakutsita" arratsaldeko 17:00etan. Parte hartu nahi izanez gero Euskara Zerbitzura deitu (948 504400) edo idatzi: [larbeleareuskaraz@iparmank.eus](mailto:larbeleareuskaraz@iparmank.eus)



### AGUR, GABENARA!

Gabenara musika talde ezagunak, azken kontzertua jo du apirilaren 20an Zubietan. Musikari alaiak agurtzeko, herritarrek festa berezi bat antolatu eta ospatu zuten. 2011ko irailean Intzako festetan lehen aldiz plazaratu ondoren, agurtzeko unea iritsi da. Gabenara musika taldea osatu zenetik hamaika plazetan festa giroaz gozatzeko aukera eskaini dute hainbat herrietan, eta dantzaz eta irriz inguratu dira. Esaten den bezala, hasten den guztiak, amaiera bat dauka, eta haien esker beroenak bihotzez adierazi dizkiete, izan dituzten taldekideei, ibilbide honetan alboan jarraitu dutenei, eta plazetan dantzatzea eta kantatzera alai hurbildu direnei.

### ZURE INGURUKO LANDAREAK EZAGUTZEA

Apirilaren 10, 15 eta 17an, Gabari Gune Irekian, naturak eskaintzen dituen landare eta lore desberdinen ikastaroa egin zen. Bi saio teoriko eta Botaniko irteera bat gauzatu zuten hurbildu ziren interesatuek, ikasitako eduki guztia praktika edo batekin amaitzeko. Lehenengo egunean, landareen identifikazioa eta herritarren zientziarako plataformaren erabilera ikasi eta ondoren, saio praktikoa egin zuten, ibilbide batean landareak aztertu eta "Observado" aplikazioa erabiltzen ikasteko. Bigarren egunean, berriro ere saio teorikoa gauzatu zen. Hirugarren egunean, ikastaroa amaitzeko, botaniko irteera egin eta naturako leku batean landareen inbentarioa egin zuten.



### PALESTINAREKIN ELKARTASUNA

Pasa den apirilaren 14ean Beteluko plazan Palestinarekin elkartasuna erakusteko jaialdia antolatu zuen mailopeko herritar talde batek. Bertan parte hartu zuten giro onean Araxes herri kirol taldeko gazteenek, ibarreko dantzari txikiak, *Euskal Barrokensemble* musika taldeak, Julio Soto bertsolariak, talogileek, sagardogileek, diseinatzaileak, abesbatzak... Jaialdia antolatzekeo bailarako denda, taberna eta elikadura negozio txikiak ere bere alea jarri zuten. Guztien artean bildutako dirua, Yala Nafarroa bidez, Palestinako UPWC eta UAWC emakume eta nekazari taldeei bidaliko zaie.





●● Gogor Elikagai Banku Sozialista

## Antolatutako Elkartasun Potentzia

**2020ko maiatzean sortu zen eskualdeko Gogor Elikagai Banku Sozialista. "Jende xehea garai zailak bizitzen ari da krisialdi kapitalistarekin eta arazoaren erroa seinalatuz, hura konpontzeko norabidean dihardu Kontseilu Sozialistaren lan lerroak" bertako kideek aipatu digutenez. 4 urteko ibilbidea egin dute dagoeneko eta elikagaien arloko hainbat datu zabaldu berri dituzte egungo testuingurua ulertarazteko asmoz.**

Norberaren egoera ekonomikoa larritu ahala, errua gure buruari bota eta irtenbideak laguntzarik eskatu gabe topatzeko joera dugu askok. Azken muturrera iristean ordea, aukerak agortu eta laguntza eskatzera be-

hartuta sentitu ohi gara, gure gain haurrak edukita, arrazoi gehiagorekin. Itolarri horrekin bizi dira gure inguruko etxeetan ere eta, hasteko, lotsak alboratu eta bizi duten egoera klaseetan banaturiko gizartearen

*"Gure oinarrizko behar guztiak aseta bagenitu, zergatik egingo genuke burgesiarentzat lan?"*

ondorio dela ulertarazteko lan egiten du Gogorrek. "Kapitalistentzat lan egin dezagun, derrigorrezkoa da pobrezia existitzea, gure oinarrizko behar guztiak aseta bagenitu, zergatik egingo genuke haientzat lan bestela?", galdetzen dute. Norbere haragitan bizi duenarentzat egoera ulerterraza dela uste dute eta "bizirauteko urgentziak unean uneko soluzioak topatzera" bultzatzen gaituela.

Epe luzeko erronkei gaurdanik aurre egiteko asmoa azaldu du Mugimendu Sozialistak. "Klaseetan banatu gabeko gizarte ipar, egungo arazoak lantzeko tresna eraginkorrak sortuz gabiltza", adierazi dute. Gogorren kasuan, familiek proiektuan parte hartu nahi badute, ahal duten heinean

soluzioaren parte izan behar dutela gaineratu dute. Janari loteak jaso ditzaten, lan ezberdinetan parte hartu behar dute: esaterako, elikagaiak jasotzeko postuetan txandak eginez. Modu honetan, "arazoaren ondorioei behin behineko soluzioa ematearekin batera, langileon arteko antolakuntza indartu" eta "epe motzeko gosea gaindituz, epe luzera goserik izango ez duen gizarte eraikiz" doala azpimarratu dute.

Haien ikuspegiaren arabera aberats eta pobre adieren orde, burges eta langile adierak zuzenagoak dira. "Langile klaseko kide gisa ez dira soldata truke lanean dabiltzanak soilik ulertzen, bizirauteko lan indarra saltzera behartuak egongo direnak ere langileak dira: langabezia daudenak, ikasleak... Lehenago edo beranduago, klase burgesarentzat egin beharko baitute lan haiek ere", azaldu dute.

### Elikagai Bankua

Hasiera batean Sakanako zati batek ere proiektuan parte hartu arren, denborarekin, Gogor bi ibarretan egonkoritu dela adierazi dute. 5 familiak jasotzen dute egun hilean behin banatzen den elikagai lotea eta bertan lekaleak, arroza, pasta, esnea, gailetak, olio, tomate eta komunezko papera sartzen dira. Behar den kasuetan pixoihalak, konpresak edo kakao ere bai, eta hortik aurrera, jendeak emandako bestelako gehigarriak: txokolata, atuna, zerealak... Hileko lehen larunbat goizean jartzen dituzte elikagaiak jasotzeko postuak Lekunberriko Aliprox eta Coviran ondoan, baita Betelu eta Arribeko janari denden ondoan ere. Bi pertsona egoten dira mahaiko eta ibar bakoitzak bere bolondres taldea dauka txanda hauek egiten dituen



Elikadura kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala aldarrikatuz elkarretaratzea  
Argazkia: Gogor

*"Langile klaseko kide gisa ez dira soldata truke lanean dabiltzanak soilik ulertzen."*

teko Zea Mays eta Eñaut Elorrietaren kontzertuak antolatu zituzten. Aurrerago Oinatz Bengoetxea tarteko, pilota partidak ere gauzatu zituzten... Bultzatzaileen esanetan "jendearen erantzun eta babes aparta ari da izaten."

### Elikadurarekin negoziarik ez

jendearekin. Bolondres bakoitzak bi hilabetetik behin egin ohi du txanda gutxi gora-behera. Jasotako elikagaiak Printzako biltegian zentralizatu eta behin loteak osatuta, familiei banatzen zaizkie.

Txandak egin edo elikagaiak emanaz laguntzen duen jendeaz gain, bada hilero diru ekarpenak eginez laguntzen duen jendea ere. Hauei esker, postuetan jasotakoaren ondoren, oinarrizko loteak jasotzeko falta diren produktuak erosten dira, egitasmoari egonkortasuna emanez. Araxes eta Ibarberri ikastetxeetan ere egin izan dira bilketak eta, horrez gain, kanpaina politikoak eta ekitaldi puntualak ere antolatu izan dituzte, helburuak sozializatu eta egitasmoa indartu asmoz. Lehen urtean, esaterako, saskien zozketari amaiera ema-

Gogor ekimeneko kideek kapitalismoaren gaineko irakurketa zabaldu dute: "kapitalismoak etengabeke lehia erreproduzitzen du, burgesen artean ere norik etekin gehiago lortuko norghegiagoka irrazional eta egoista bultzatuz, natura eta gizakiak neurririk gabe esplotatzen dituen bitartean". Beren ustez irabazien gorakadak ezin zuen etengabe gorakorra izan eta "kapitalismoaren loraldiaren ostean krisialdia" etorri da, non "burgesiak bere pribilegioei uko egin ez eta murrizketek langile klasea pobretzen duten".

Honek, jendeak oinarrizko beharrik asetzeko zailtasun gehiago izatea dakarrela eta, ondorioz, amorrusoziala areagotuz doala azaldu dute. Ekintzaileen ustez "hori kontrolatzeko bi modu dauzka burgesiak, bate-



Eñaut Elorrieta eta Zea Maysen kontzertuak.  
Argazkia: Gogor





Printzako biltegian elikagai loteak osatuz  
Argazkia: Gogor

tik, kontzesio apur batzuk gauzaten ditu jendea horrekin konformatu eta bare mantenduz eta, bestetik, indar armatuen eskuhartzea indartzen du, aurre egin diezaioken edonor azpiratuz”.

Gogorrek zabalduetako datuetara joz, 8 mila milioi pertsona bizi garen mundu honetan 10 mila milioientzako adina janari ekoizten da. Hala ere, %10a gosea pasatzen ari dela eta ekoizten denaren %30a bota egiten dela gaineratu dute. Haien hitzetan, “honek elikagaiak negozioa egiteko erabiltzen direla jartzen du agerian, jendearen beharrak ase-

tzeko antolatu beharrean”. Datuetan sakonduz, azken urtean elikagaien prezioak %15 igo direla azaldu dute, “bitartean langileon soldatek izoztuta jarraitzen dute eta Mercadonak, esaterako, bere irabazien errekorra gainditu zuen 2023an irabaziak %40 igoz”. Egiten duten irakurketaren arabera “burgesia gehiago aberastuz eta langileria gehiago pobretuz, gizartearen polarizazio baten aurrean gaude, klase ertaina deskonposatuz”. “Teknologia inoiz baino garatuago dagoen garaiotan” injustizia hauek gero eta ulergaitzagoak direla diote. Teknologiaren garapenak langileen beldurra sortzen duela adierazi

*“Mundu mailan %10a gosea pasatzen ari da eta ekoizten denaren %30a bota egiten dute.”*

dute, lana galdu eta ondorioz beharrak asetzeko arriskuak ikusarazten dituela. Baina euren ikuspuntutik, teknologiaren garapenak gutxiago lan eginda hobeki bizitzeko aukera eman beharko luke. “Egoeraren kontrola burgesiak edukitzetik, langileriak eskuratzea igaro beharko da konponbiderik egotekotan”, gaineratu dute.

Elikaduraren kalitatea gure soldaten araberakoa dela ere esan digute: “zenbait familiak argia edota alokairua ordaintzeari utzi behar izaten diote jana ordaindu ahal izateko eta kalitate eskaseko elikadura izateak, desnutrizio egoerara daramatza”. Nafarroako datu batzuk gehitu dituzte horren erakusle, 5etik 1 pobrezia arriskuan eta 10etik 1 pobrezia egoeran dagoela gaineratuz. “Zirkulu zikoitz honen aurrean, oinarritzko beharrak negozioen hatzparretatik atera eta denok kalitatez ase gaitzen, Kontseilu Sozialistaren lan lerro honek kontzientziak piztu eta antolatzeko fasea indartuz” diharduela azaldu dute.

## Antolatzeko deia

Argazki orokorrago bat egin asmoz hurrengo azalpena eman nahi izan digute: “kapitalisten kontrolpeko munduak hala izaten jarrai dezan, haien aldeko legedia beharrezkoa du eta hori da estatua, azken batean, klase batek besteari bere legeak inposatzeko tresna”. Estatuen manio-bra gaitasuna enpresa eta bankuen menpekora dela gaineratu dute, “Estatu batek enpresa bati ezarri nahi dion BEZ-a gehiegizkoa iruditzen bazaio, enpresak beste herrialde batera alde egiteko mehatxua egingo dio”. Hartu eman horri krisialdia gehituta, estatuaren gaitasun ekonomikoak jaitziz doazela eta murrizketak egitea behartua dagoela gehitu dute eta osasungintzaren egoera adibide gisa jarri dute.

Gogor-eko kideen arabera honi aurre egiteko “promesa faltsuak” egiten dituzte “alderdi politiko instituzionalak”. Kontseilu Sozialistako kideen ustez “Estatuaren barruko partxeekin lortuko dutela justizia esanez, egituraz injustua dena moldatzeak ez



Betelun berri emaniko hitzaldia  
Argazkia: Gogor

*“Behin betiko konponbidera eramango gaituzten bideak jorratzeko dei egiten dute Gogorreko kideek.”*

digula soluziorik ekarriko ezkututzen digute”. Testuinguru horretan “Mugimendu Sozialista proletargoaren beharretatik abiatuta burgesiarekiko independenteki antolatuz, instituzio propioak eraikitzeke lanean” dabilela azaldu dute. “Langileria botere organo hauek justizia kolektiboa eraikiz doaz eta mundu mailako munstro kapitalista boteretsua dela jakin arren, hura gainditzeko proiektua abian dago”, gaineratu dute. “Gure arazoetatik deskonektatu

eta ekintza puntualekin gure kontzientziak lasaitzetik, errealitatearen analisi fidela eginda, behin betiko konponbidera eramango gaituzten bideak jorratzeko” dei egiten dute Gogorreko kideek. “Gerra arriskuak, urgentzia klimatikoak eta injustizia sozialak, ardurak gure gain hartu eta klase elkartasuna lehenbailehen gauzatu beharrera garamatza”, ondorioztatu dute.

Norabide horretan Euskal Herriko Kontseilu Sozialista sortu zuten abenduan eta jakinarazi dute Katalunia, Galizia eta Espainiar lurraldeetan ere antolatzen hasi direla. Lanean jarraitzeko euren konpromezuan berrestearekin batera, antolakuntzara batzeko deia luzatu dute: “Ahal dena eman, behar dena hartu”.

**Lagunasesoria S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
lagunasesoria@terra.es

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

rey del bacalao  
**Super mar**

**BACALAO ELKANO S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
bacalaoselkano@jet.es  
www.bacalaoselkano.com.

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara




## Mendialdeko azoka ibiltaria Arriben

Arribetik igaro da Mendialdeko azoka ibiltaria bertakoei eta ingurukoei produktu desberdina eskainiz. Bosgarren edizioa izanen da aurten, Araitzen hasiz, Arribeko herrian, apirilaren 21ean. Azoka goizeko 11:00tatik 14:00tara egon zen zabalik. Bertan 22 postu zeuden, 13 elikagaienak eta 9 artisauenak. Azokarekin batera, artzainen usadioei buruzko ekitaldi interesgarria egin zen, ardi kalparraren mozketan antzinako erara nola gauzatzen zen erakutsiz, eta artiletik harira sortzeko prozesua azalduz. Mendialdeko azoka ibiltaria, elikadura osasungarri eta jasangarri bat bultzatzeko egiten da. Mendialdea eskualdeko ekoizleen eta artisauen zuzeneko salmenta sustatzeko gune bat da. Ekoizleak eta artisauak beraien produktuak ikustarazi eta egiten duten lanaren balioa erakusteko. Ekoizle eta kontsumitzaileen artean harremanak sortzeko (ostalaritza, merkataritza, turismoa...), eta horrekin batera, eskualdea ezaizatzera emateko eta sinergiak sortzeko.



Lekunberrin egindako aurkezpenean, Cederna Garalur elkarteak teknikaria eta Mendialdeko hainbat udaletako ordezkariak



Ardiari artilea kenduz.  
Argazkia: Jose Manuel Zubillaga



Haria ehuten.  
Argazkia: Jose Manuel Zubillaga



Haria egiteko artilea prestatuz.  
Argazkia: Jose Manuel Zubillaga

## Giro ederra Dona Maria Baselizan

Apirilaren 16an, Santa Engrazia egunarekin, meza txikia egin zen Uitziko ermitan, eta aste eguna izan arren 24 lagun elkartu ziren bertan. Egun pare bat lehenago, herritar batzuk ermita garbitu eta prestatzera joan ziren auzolanean murgilduz, izan ere, askotan ikusten ez den lan garrantzitsua da hori ere. Ohiturari jarraituz, aste bereko igandez, apirilaren 21ean, batzuk oinez, eta beste batzuk autoz, Uitziko ermitaraino igo eta bertan jende ugari bildu zen. Ondoren, otordu bat egin zen galdutako indarrak berreskuratzeko. Urteko lehenengo erromeria izaten da Santa Engrazia egunean ospatzen dena, eta herritarrek alaitasunez jarraitzen dute tradizioa zainduz. Hurrengo erromeria Arruizeko Dona Luzian izanen da, maiatzaren 12an.



Uitziko Baselizan egindako erromeria.  
Argazkia: Joxe Mari Zabaleta



Dona Engrazia baseliza garbitu eta gero, erromesaldia egin baino lehen. Milagros, Bixente Juani eta Ana Mari.  
Argazkia: Mikel Martirena



Otordua Dona Engrazia baselizan  
Argazkia: Mikel Martirena



Haurrak txangoan.  
Argazkia: Teresa Mariñelarena



2. Altxorraren bila jolastan  
Argazkia: Teresa Mariñelarena

## Lezaetatik, Betelura

Beteluko Araxes ikastetxeko LH2 eta LH3ko ikasleak, apirilaren 12an, eguraldi bikaina iragarrita zegoela ikusita, udaberriari ongi etorria egin zioten. Lezaetara taxiz joan eta oinez itzuli ziren. Eguzkiak edeki berotu zituen abenturazaleak, aldapa gora, batez ere. Inguruko altxorrek ezagutzeko aukera paregabea izan zuten bertakoen eskutik (Bakartxo eta Lartaun): etxeak, iturria eta aska, garbilekua, okindegia, parkea, eliza, garai bateko eskola, behorra bere txamalarekin, lore eta landareak, ahuntzak, etab. Bitxikeri bat ere bai: txori-habia arrautzatxoekin, ezohiko tokian bertatik bertara ikusi eta urrundu bezain laster, ama, tentu handiz, arrautzak berotzera nola sartu zen ikusi zuten. Lezaetatik Beteluko mugara bitartean hiru taldetan banatu eta "Altxorraren bila" gogotsu aritu ziren, "pazientzia" lantzeko erronkari aurre eginez. Bai gustura! Helmugan, sari bikainak topatu zituzten partekatzeko. Giro ederrean ibili ziren, alai eta pozik eta, beti bezala, gauza berriak ikasiz eta naturaz gozatuz.

**TALLERES GOÑI**  
TALLERRAK

**TALLERES GOÑI**  
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM



## Kinto Eguna Lekunberrin

Aurtengo Kinto Egunean giro aparta bermatu da Lekunberrin. Apirilaren 6an bazkari autogestionatua egin zuten adin desberdinetako kintek frontoian, urte guztian zehar gutxi ikusi eta gero, aspaldiko istorioak eguneratu zituzten festa giroan. Asetu arte jan eta edan ondoren, Bingo txapelketa pare bat egin, gaztaren pisua asmatu, eta gero, Distopia elektro-txarangaren erritmoan Lekunberriko kaleak kantatuz eta dantzatzuz alaitu zituzten, ibilbidea llongi tabernan amaitu arte. Lotara joateko inentziorik gabe, iluntzean, DJ Izzei & Eneko arduratu ziren egun guztiko nekea baztertu eta festazaleak berpizteko, musika eguneratua eskainiz.



Lekunberriko gazteak frontoian bazkaltzen.  
Argazkia: Eva Fernández



Kinto desberdinak Lekunberriko kaleetan elektro-txarangarekin  
Argazkia: Maite Lasarte



Argazkia: Maite Lasarte



Matatech Mus Txapelketa.  
Argazkia: Asier Albiasu



Matatech gauean, DJ jotzen.  
Argazkia: Asier Albiasu

## Matatech V

Lekunberriko Mataderoan ospatu da V. Matatech eguna apirilaren 20an. Bertako gazteek Mataderoa hobetu eta berritzeko laguntza ekonomikoak lortzeko antolatu zuten. Izan ere, eraikina mantentzeko zeregin desberdinak bete behar dituzte, horien artean: teilatuko konponketa txikiak egin, kanpoko paretak margotu, telebista berria erosi, etab. Horretarako, aurrera eraman zuten techno musikaz oinarritutako festa. Dantzan hasi baino lehen, arratsaldeko 17:00ak aldera Mus Txapelketa egin zen, eta iluntzean, gaueko musikari gonbidatuak: Eddy Trxxx, Aimar Oskariz, Nigrum Lumen eta Dj Zaze izan ziren. Gau itzela igaro zuten Technozaleek, eguzkia atera arte dantzan.

## “Ez erran inori”

Maddi Ane Txoperena Lekunberrin egon da “Ez erran inori”, bere bigarren eleberria aurkezten. Lekunberriko Mitxasenea kultur etxean garatu zen literatura geraldia, apirilaren 23an. Liburu honetan, Lide protagonistak txikia zela sufritutako sexu-abusu bati buruz hitz egiten du idazle gazteak. Bere lehenengo liburu “Ene baitan bizi da” amaitzen ari zela hasi zen bigarren liburu hau idazten. Liburu honen eramuina, duela urte batzuk egin zuen ipuin bat izan zen, modu berezian idatzita dago, euskara aberats eta ederrean, bertan, katuak, musika, droga, natura eta hainbat elementu desberdin ageri dira. Idazlearentzat, burua eta gorputza gauza bera dira, emozioak bat egiten dute. Istorio honetan, mina garaitzeko, protagonista eskolan sartzen da, baina sexu abusua ondorioz sortu den piztia, barruan dago. Autosuntsipena eta isiltasunaren arazoari buruz ere hitz egiten du, “Zauriak sendatzeak min ematen du, baina agian, beharrezkoa da” dio idazleak. Sorrena garatzea maite duen horietako idazlea da Maddi Ane, fikziozko istorio hau arte adierazpen moduan egin du, beretzat askatasuna eta abentura da. Tabuaren ezarpena estali, jakintasunez hitz egin eta gaiari buruz hausnartzeko aukera izan zuten gerturatu ziren guztiek.



Maddi Ane Txoperenarekin solasaldia

## “Hamarreko bitxia” liburuaren aurkezpena

Apirilaren 19an, Gabari Gune Irekian egin zen “Hamarreko bitxia” liburuaren aurkezpena, Saioa Alkaiza eta Maite Aizpuruarekin. Hamar idazleren lanak biltzen dituen liburu interesgarria da hau, bakoitzari egokitu zaion herrian edo herri multzoan sortu eta landutako testuak elkartzen dituen liburu interesgarria, Geuretik Sortuak proiektuko euskaraz idatzitako lan ederra da.



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

## MOTZ-MOTZEAN

KOLDO NUÑEZ

## Estatu Batuetan hausnartua

Udaberri hasieran hiru aste eman ditut Estatu Batuetan. Indiana, Missouri eta New Yorkeko estatuetan barrena ibili naiz bikotea eta familia bisitatzen. Mississipp eta Missouri ibai handiek bat egiten duten leku miresgarrian eta Niagarako ur-jauzi ederretan egon naiz. Tornado bat eta honek sortutako triskantzak ere zuzenean ikusi ditut. Gauza askok deitu didate atenzioa, hobeak eta okerragoak. Hauetako bat izan da zein presentzia handia duten militarrek. Hilerritan leku bereziak, monumentuak, kaleak, argazkiak, kartelak e. a. Militarrek eta militar ohiak oso presente daude. Unibertsitatean bertan badago gazteak errekrutatze bulego. Pankarta batean irakur daitezke “Zuek (militarrak) etorkizuneko liderrak izango zarete”. Zaila egiten zitzaidan ulertzea non dagoen guzti honen sustraia.

Bertan irakurri dudak liburu batek argia ekarri dit. Oso ongi azaltzen du nola gure familiarren historiak, ezagutzen ez badugu ere, noraino bultzatzen gaituen bizitzan erabakiak hartzeri eta dugun bizimodua bizitzera. Jaiotzen garenean ez gara folio zuri bat. Asko ekartzen dugu idatzita eta horri lotzen gataizkia. Estatu Batuetako asko eta asko, gerra desberdinetatik etorritakoen ondorengoak dira eta hori darimate barruan idatzita. Honek, neurri batean, azal dezake nik han ikusitakoa.

Eta nik, zer ekarri nuen idatzita jaiotzean?



**IORTIA** CLÍNICA DENTAL · HORTZ-KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785  
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberrin: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia  
Estetika  
Presoterapia  
Podologia  
Laser-depilazioa eta  
depilazio elektrikoa  
Dietista-nutrizionista  
Mikropigmentazioa ezpainen  
Mikroblading bekainetan



## Erronka handiena liga izan da, eta lorpen handia ere

Beteluko areto futbol taldeak ligako lehen postua lortu du, hiru jardunaldi lehenago, 60 puntuetatik 50 lortuz igo dira 3. mailara. Bakarkako trebezia ez ezik, talde lan ederraren ondorio itzela izan da igoera bultzatu duena. Teldeko kideen arteko harreman ona oso garrantzitsua izan da merezitako arrakasta lortzeko.



22

### Zorionak ligako lehen postua lortzeagatik! Nola sentitzen zarete lorpen historiko honen ondoren?

Pozik egia esan, igotzea helburuetako bat zen taldea autonomikoan sortu genuenetik, lortu ondoren oso pozik gaude. Hala ere, hasieran ez genekien igoko ginenik, eta emaitzarekin ezin gara gusturago sentitu.

### Zein izan da, zuen ustez, denboraldi honetako arrakastaren gakoa?

Alde batetik, agian taldeko guztiak lehenagotik ezagutzea, eta beste aldetik, taldea aurreko urtean osatu

*“Elkarlana eta konfiantza oso garrantzitsuak dira guretzat”*

genuenez lortu genuen esperientzia. Azkenean, denak hemengoak gara, kuadrilla bat bezala, eta hori nabaritzen da.

Etxean jokatzeko ere oso garrantzitsua da, eta beste gako bat, Beteluko frontoia izan da, bertan jokatzeko asko

lagundu gaitu. Azkenik, gazteak osatitako partidetak animatzera etortzen zirela ikusteak ere, pila animatu gintuen.

### Nola deskribatuko zenituzkete maila hontara iristeko denboraldian zehar egin dituzuen prestaketa eta entrenamenduak?

Beti bezala udan hasten gara aurreko denboraldiarekin, eta azkenean agian entrenatzaile ardua hori Andonik dauka, baino denen artean egiten ditugu entrenamenduak, astean bi aldiz frontoian. Oso noizean behinka



Beteluko areto futbol jokariak.

23

korrika egitera joaten gara, batez ere denboraldia hasi baino lehen. Bada-kigu nola antolatu eta azkenean beti antzekoa egiten dugu, baina ezer bezirik, asko hobetu behar dugu hori. Beti saiatzen gara astean bi aldiz elkartzeko, eta kanpoan ikasten duten taldekideak, etortzen saiatzen dira, gutxienez egun bat. Orduan, normalean 13tik 10 pertsona beti gaude.

### Zentronikoren aurkako azken partida zirrargarria izan zela diote. Zer estrategia inplementatu zenuen garaipena ziurtatzeko 7-3ko markagailu sendo baten alde?

Estrategia handirik ez egia esan, naturalki atera zitzaiguna. Beti urtean zehar ibili garen bezala jokatu eta besterik gabe, defendatuz. Urte osoan jokatu ditugun partidu gehienak irabazi ditugu eta azkenean garrantzitsuena ongi defendatzea izan da, ditugun aukeratan gola sartu, gure artean ez haserretu (batzuetan haserretzen gara), eta azkenean, nola hemen herriko jendea zegoen

*“Jokatzen jarraitu eta mantentzearekin gustora sentitzen gara”*

*“Emaitza txarrak ditugunean beti elkarren artean hitz egiten dugu seriotasunez entrenatzeko”*

ba saiatu ginen partida polita egiten. Egia esan, egun oso polita izan zen. Gure aurretik klubeko umeek jokatu zuten eta jokatzera atera ginenean pasillo bat egin ziguten, bertatik igarotzean txalotzeko.

Ondoren, aureskua eta kalejira bat egon zen, ume eta heldu guztiakin. Oso polita izan zen, azkenean ez genuen espero.

### Gogoan duzue denboraldiko une edo partida zirrargarrik? Hala bada, zein eta zergatik?

Batez ere Arbizuren aurka etxean jokatu genuena, partida nahiko garrantzitsua zen eta giro polita osatu zen. Guk nahiko gustura jokatu genuena, eta Arbizukoak lehenengo edo bigarren zeudenez, markatuta zegoen partida izan zen. Astefora taldearen aurka hemen, lehenengo jokatu genuena ere interesgarria izan zen. Baita Iruñeko partida ere, markagailua berdin gelditu zen, Universidad Navarra kirol taldearen aurka, etxetik kanpo.

### Zein izan da denboraldian zehar talde bezala izan duzuen erronkarik handiena eta nola gainditu zenuen?

Erronka handiena liga izan da, eta lorpen handia ere. Hasieratik nahiko ongi ibili gara, irabazten. Beste erronka handiena etxean izan zen, Arbizu irabaztea, eta bueno, atzetik zeuden talde horien aurka jokatzeko. Azkenean gogo gehienak haien aurka erakutsi



genituen, eta gusturen behintzat haien aurka jokatu genuen.

**Zer rol jokatu duzue jokalariek eta entrenatzaileak taldearen arrakasta lortzeko denboraldi honetan?**

Denak gara entrenatzaile eta jokalaria. Agian, denboraldi hasieran, Andoni lesionatuta egon zenean, hor entrenatzaile rola gehiago jokatu zuen, baina gero denak batera. Adibidez orain, taldeko beste kide bat egon da, modu batean denak igaro gara entrenatzaile izatetik. Partiduetan, zuzentzen beste pertsona bat egoten da, eta gero adibidez Andoni jolasten hasi eta lesionatuta zeuden beste batzuek ere entrenatzaile moduan lagundu dute.

**Nola deskribatuko zenukete taldearen giroa eta jokalarien arteko adiskidetasuna denboraldian zehar?**

Hobetzea zaila, oso ona. Batzuetan arazoa hori da, giro onegia daukagula, lasaiegia, agian seriotasun falta, nola denok ezagutu, lagunak garen eta parranda ere batera egin dezakegun, ez dago erreferentzia entrenatzaile finko batena, denak bat gara. Agian ez daukagu beste taldeek daukaten organizazio hori. Entrenamendu serio horiek aurkitzen ditugu ere, batez ere denboraldi hasieran, eta emaitzen arabera lasaitzen goaz.

**Zeintzuk dira taldearen helburuak eta asmoak datorren denboraldirako?**



Futboleko jokatzeko Argazkia: Andoni Urrestarazu

**“Partiduetan sortzen den giroa asko gustatzen zaigu eta oso gustora gaude”**

Azkenean gu baino lehen beste jokalaria batzuk zeuden, beraien taldearen izenarekin jokatzeko baime-na eskatu genien, guk taldea berreskuratzeko. Baietz esan ziguten eta asko lagundu baita. Beraiek dira zuzendariak, denen artean elkartu eta datorren denboraldikoa prestatu eta garatzea espero dugu.

Talde hau duela 20 urte inguru sortu zen eta guk hartu dugunetik, urte bat igaro da, gure helburua momentuz egoera mantentzea da. Gure artean hitz egin eta kanpora ikastera doazen

jokalarien ordutegiaren arabera, antolatuta eta entrenatzen gelditzea desafio bat izango da, baina lortu nahi dugu. Printzipioz, berdin jarraitzea da gure helburua.

**Azkenik, beste zerbait gehitu nahi duzue, mezuren bat?**

Eskerrak eman nahi dizkiegu ostiraleko partidua ikustera joaten direnei, baita beti animatzen eta laguntzen gaituztenei, babesten gaituzten inguruko lan-enpresei, eta zuzendaritzakoei, izan ere, denak oso garrantzitsuak dira prozesu honen guztian. Ikustera etorri ez direnei, animatu nahi diegu etortzera. Egia da dirudiela tenporada bukatu dela, baina etxean behintzat kopako 3-4 partida gelditzen dira.


**Pandemia**

**Euskal Herriko Mendi Erronka badator**

Aurten lehen aldiz Euskal Herriko Ultra Txapelketa ospatuko da eta EHME izango da, bi federazioek bat egin eta txapelketa bakarra egingo da azkenean Euskal Herrian. Ibilbideak, urtero bezala, 67 km. eta 7.200 metroko desnibel metatua izanen ditu Mendialdea-Aralar inguru menditsu ikusgarriaren barrena (Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Leitzaldea). Izen emate guztiak denbora gutxian bete ziren, 650 pertsona inguru lehiatuko dira. Zeintzuk ausartuko dira lasterketa amaitzean, zintzarria jotzera?



Lagunek, helmugara iritsi den partehartzaileak besarkatzen.



Irteera



Bi neska helmugara iristen



Zintzarria

“Etxe” hauek gutxi dute etxeaz, goxotasun, babes eta bake gutxi daukate barruan. Ilunak dira, zarata, musika eta kaos bezalakoak, han eta hemen diru azkarra eta erreza irabazteko aukera eskura, sartu musika azkar apurra eta zenbait gozagarri. Galdu zara. Egia esan helburua zein duten kontuan izanda, diseinua paregabea da, meritu hori ezin diet kendu, ehuneko ehunean betetzen dute beraien funtzioa.


Eta hori da hain zuzen arazo handiena, ondoegi egiten dutela beraien lana. Jendeak benetako etxea galdu arte muturreko egoeratan. Amona, txakurra eta gainontzeko dena eta guztiak barruan direla, giltza hartu eta ale! “kale o bale” dena gorrir! Beltza ateratzen da ordea. Oso beltza. Zulo hauetan dena delako beltza.

Denboraren zentzua iluntzen dute, literalki, dena iluntzen dute, dena, leihorik ez, erlojurik ez, diru hotsak eta ziñak, zure pentsamendu eta norantzkoa lausotu arte, kanpokoaz eta errealitateaz pixkana zantzua galtzen duzu eta ehizatu zaituzte. Ondoren irteeran, hurrenarte bat irribarre batekin! Banketxean anaia txiki majoak, lagunkoiak, jiji-jaja eta azkenean beraiek jojo. Ez ahaztu anaiek guraso berberak izaten dituztela.

“La banca siempre gana” ez da hitz joko soil. Gero eta gehiago, apustu etxeak hor tinko, negozio txikiak zeuden leku berean, sistema ziklikoa omen da, batzuk itxi, besteek ireki, denok irabazi. Ziklikoak ez. Zikloiak.

**Euskal Duatloi Txapelketa**

Ibai Soroa, Euskal Duatloi Txapelketaren finalera iritsi eta 6 lehiakideetatik, 4. postua bereganatu du. Euskal duatloia kirol proba ederra eta gogorra da. Finaleko parte hartzaile bakoitzak 45 pulgadako lau enbor moztu behar zituzten, horizontalki kokatuak, ondoren, lau kilometro korrika egin eta amaitzeko, 45 pulgadako lau enbor moztu behar zituzten. Final zirraragarria izan zen.



Ibai Soroa lehiatzen



**ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro eskaintza bereziak

**OTXOTORENA**  
okindegia  
ARRIBE  
ADIII TLF BERRIA:  
948 51 30 32

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARMITZ  
LARRAUN  
JALMENTIA ETA KONPONTZEA  
634 551 743  
infoaralar@gmail.com

Erronketa 19,  
Lekunberri  
**MARTIÑO TXIKI**  
PURNISIO ISKOLA  
www.martilotxiki.com  
679 938 016

**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
sotilgarajea@gmail.com

**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79


**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34





# M'ESTIMO

Orokorrean autoestimua baxuari buruz hitz egiten dugunean burura datorriguna da "ez zait nire gorputza gustatzen", baina benetan atzean dagoena askoz gehiago da. Ulertu behar dugun lehenengo gauza da autoestimua ez dela lineala, ezta muturretakoa altua edo baxua. Bizitzaren momentuaren arabera aldatzen doa, egunaren arabera barne. Gertatzen zaizkigun gauzak efektu bat daukate guregan eta horrek eragin bat dauka gure autoestimuan ere.



**Orduan, zer esan nahi du edo zertan ikusten da autoestimua eskasa izatea?**

1

**Barne-hizkuntza negatiboa:** zure buruari zuzentzeko moduak asko adierazten du zure burua nola estimatzen duzun. Batzuetan ez gara konturatzen, baina bidaltzen ditugun mezularien bidez geure burua epaitzen dugu, exijitzen diogu elkarri, gaizki tratatzen gara. Bere egunerokoan despisterik izan ez duenak eta bere buruaz "a ze ergela naizen" esan duenak, edo zerbait gaizki ateratzen zaizunak, "a ze inutila naizen" esan du. Alde horretatik, aholkurik onena honako hau litzateke: tratatu zure maiteak (familia, lagunak, bikotekidea...) nola tratatzen dituzun; izan ere, gainerakoekin askoz atseginagoak izan behar dugu, geure buruarekin baino.

2

**Autoexijentzia handia:** ironikoa dirudi, baina autoestimua gutxiagoren aurka, zorrotzagoak gara geure buruarekin, eta zergatik? Batez ere, okerragoaren aurka hobeto ikusten dugulako elkar ikusi nahi dugulako eta perfekzioa bilatzen dugulako (ez dago perfekziorik). Ez hainbeste lor dezakegula uste dugulako, baizik eta huts egiten uzten ez diogulako geure buruari.

3

**Zure mugak ez errespetatzea:** okerragoaren aurka, geure burua gehiago ikusten dugu besteen

onespenaren atzetik, gainerakoetan bilatzeko geure buruarengandik jasotzen ez duguna, segurtasun hori, maitasun hori, ardura hori... esatea ez dela beste artikuluren batean idatzi nuenari buruz esatea, baina garrantzitsua da hori gogoratzea, zeren "beste masaila jartzea" eta gehiegi eutsi behar izatea oso sakona izan baita. Ez dugu ondo egiten ez diguten gauzak jasan behar, eta garrantzitsua da mugak izatea; bestela, zu izango zara sufrutuko duena.

4

**Funtsean nahi ez dituzun gauzak egitea besteengatik:** aurrekoarekin lotuta batzuetan gure denbora sakrifikatzen dugu nahi ez ditugun gauzak egiteko, iruditzen zaigulako gainerakoek gu onartzeko ezin dugula inoiz ezetz esan. Beste behin ere geure mugak gainditzeko modu bat litzateke hau. Hobe gauzak nahi duzunean egitea eta gogoz egitea, eta horretaz jabetzea sakrifikatuko baduzu, pertsona horrentzat ahalegin hori egiteak konpentsatzen zaituelako, uneren batean zu ere bat datorrelako.

5

**Gainontzekoen iritziari garrantzia ematea:** batzuetan garrantzi handiegia ematen diogu besteek gure egoeraz pentsatzen dutenari. Horrek gainerakoei kalte egingo ote dien pentsatzeaz gain, hori ingurunean egokitze beharretik etor daiteke, baztertuta sentitu nahi ez izatek. Baina kontuan izan erabaki horren ondorio guztiekin biziko den pertsona bakarra zu zeu izango zarela, ez al da hobe izango lehendabizi zuegan arreata jartzea?

6

**On egiten ez dituzten loturak dituzu:** gaizki lagunduta baino hobe da kasu egin beharko geniokeen esaera zahar bat izatea. Batzuetan, gaizki tratatzea merezi dugula iruditzen zaigulako, modu inkontzientean, edo on egiten ez diguten pertsona horiek ematen digutena baino tratatu hobe merezi ez dugula uste dugulako, guretzat kaltegarriak diren pertsonengandik gertu geratzen



gara. Baina badakizu? Esan nahi dizut munduan jende on asko dagoela, baina irekita egon behar da ezagutzeko eta aukera emateko.

Total, posible dela fisikoki zure burua ez gustatzea, baina posible da ere zure burua gustoko izatea eta autoestimua baxua izatea.



**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.  
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7  
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

German Lasarte  
**HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

SAN MIGUEL  
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099  
Arbe-Atalla



**urrutia**  
*enea*

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**



## “Zoriontsu naiz nire lanean, eta lanetik kanpo”

**Lekunberriko errepide alboan, hainbat istorio izkututzen dira, horietako bat, Libiaren istorioa da. Kolonbiatik etorri zen duela urte batzuk eta hainbat leku ezagutu ondoren, gaur egun, Lekunberriko Confort arropa garbitegian egiten du lan. Bertan igarotzen ditu orduak arropa pilen eta makinaren marmarren tartean. Libiak, muga geografiko eta kulturalak gainditu dituzten esperientziekin maindire bat ehundu du, komunitatearen barruan ezinbesteko zutabe bat eraikiz.**

### Zerk bultzatu zintuen Lekunberrin lan egitera?

Duela bost urte iritsi nintzen Iruñeara, zaintzaile gisa lan egiteko. Iruñea nahiko hiri zaila da lana lortzeko, eta curriculumak banatzen hasi nintzen herrietan. Lekunberriko Goxogoxo, gozo-dendan bat utzi nuen,

eta handik hilabetera zaintzaile gisa lana eskaini zidaten, hilabete pare baterako. Baiezkoa eman eta Lekunberrira etorri nintzen: kontratua sinatzera, lekua, jendea eta pisua ezagutzera. Hasieran, astebete egon nintzen zaintzaile gisa Iruñeako ospitalean, eta gero Lekunberrira etorri

nintzen lanera. Azkenean 3 urte eta 4 hilabete eman nituen bertan lanean. Gero nire bikotekidea ezagutu nuen eta Iruñeako enpresa batek kudeatzen duen garbitegi honetan lan egiten hasi nintzen, bertako jabeak Sergio eta Guillermo dira.

Hasiera batean garbitokia haiek erosi zutenean, Albi tabernako neska baten bidez nire zenbakia lortu eta lanerako deitu ninduten. Haiekin hitz egin eta gaur egun, urtebete daramat hemen lanean. Bezeroek, nire lana oso ongi egiten dudala eta bikaina dela diote. Ia 4 urte eta 4 hilabete daramatzat Lekunberrin eta abuztuan, 5 urte beteko ditut Espainiara iritsi nintzenetik. Zoriontsu naiz nire lanean, eta lanetik kanpo. Ustedut hemendik ez naizela joango.

### Nolakoa da zure laneko ohiko egun bat?

Orain batez ere, goizean egiten dut lan. Arratsaldeetan zaintzaile lanean nabil 16:00tatik 20:00tara, baina

*“Oso ongi nago, bezeroak oso pozik daude nire lanarekin”*

garbitokian oraingoz goizetan besterik. Uda hurbiltzen ari dela, Aste Santuaren ondoren lan asko dator, orduan, 8:00tatik 14:00tara nago. Neguko denboraldian berriz, garbitegia 10:00etatik 14:00tara dago irekita, lan gutxiago dagoelako, baina, hala ere, eskariak daude. Ohikoena da asteleheneetik asteazkenera arropa asko jasotzea, landetxe eta ostatuetako eskaera guztiak iristen direlako, eta orain jende desberdin asko etortzen da edredoiak garbitzera. Etxean garbitu ezin duten guztia garbitokira ekartzen dute.

### Zein dira zure egunerokotasunean dituzun erronkarik handienak?

Jendearen eskaera guztiak betetzea, landetxeek eta ostatuek batzuetan izarak eta eskuoihalak edozein orbanekin ekartzen dituztelako. Azkenean, alokatzen diren etxeak dira,

eta ezinezkoa da jakitea nor iristen den etxera, nola zaintzen dituen erabilitako ohial eta maindireak... Beraz, erronka izugarria da zikingune guztiak garbitzea, ongi txikundu behar direlako eskariak, bai ala bai. Orduan, garrantzitsua da produktu desberdinen erabileraren jakintza, azkenean orban guztietarako produktuak daudelako, baina egia da batzuetan zaila dela jakitea zeren orbanak diren. Tira, azkenean beti aurkitzen da ahalik eta hobekien garbitzeko modua.

### Zer da hemen lan egitetik gehien gustatzen zaizuna?

Nire lanean kontzentratu naitekeela, ez dut eragozpenik, jendeak ez nau eteten, etorri eta berehala joan egiten dira. Hemen nagoenean lanean ari naiz denbora guztian. Hori da gehien gustatzen zaidana, lasaitasuna.

### Ustekabeko alderdiren batek atentzioa deitu dizu?

Nik uste dut jendearen esker ona dela baliotsuena, beraien gauzak jasotzera etortzen direnean, beti adierazten dute haien esker ona. Izarak, eskuoihalak eta horrelako arropa desberdinak zoragarri garbitzen ditudala diote. Hori entzutea, norberarentzat pozgarria da. Oso ongi sentitzen naiz nire lana ongi egiten dudala jakitean, oso sentsazio polita da.

### Nolakoa izan da zure esperientzia hemen lan egiten duzunetik, batez ere tokiarekin eta jendearekin?

Iruñera iritsi nintzenean, lehenagotik ezagutzen nuen Kolonbiako mutil batekin egin nuen topo. Berandua-go, berriro elkartu ginen, eta Iruñean lanik ateratzen ez zela ikusita, nire curriculuma herrietan banantzen laguntzeko eskatu nion. Lekunberrira iritsi ginenean, curriculuma bertan uztea ekintza galdua zela esan zidan.



*“Une onetan, lan asko dago, baina egia esan, nire lana egiten asko gozatzen dut”*

Hainbat arrazoiengatik, ez zuen uste hemen lanik eskainiko zidatenik. Nik, gauzak desberdinak zirela uste nuen, eta curriculuma uztea erabaki nuen. Azkenean, jaso nuen dei bakarra Lekunberrikoa izan zen. Politia iruditu zitzaidan, oso polita, jendearen ongi etorria sentitu dudalako, eta, egia esan, ez dut inorekin eragozpenik izan. Oso ondo moldatzen naiz pertsona guztiekin, asko errespetatzen saiatzen naiz errespetatzen ez zaidan.

### Zerk inspiratzen zaitu egunero lanean jarraitzera?

Nire familiak eta dauzkadan proiektuek. Uste dut bizitza igaro bitartean proiektu eta asmo ugari izan behar ditugula, eta horrek egunero jaikitzen bultzatzen nau. Niretzat oso garrantzitsua da nire herrira itzuli nahi izatea, nire jendea ikustera, nire gurasoak ikustera. Seme bat daukat han, eta iloba eder bat, oraindik ezagutzen ez dudana, bideoen

*“Lekunberriko jendearen harrera oso polita izan da”*

bidez bakarrik, eta horrek egunero inspiratzen nau. Etorkizun hobe lortu eta familiarekin partekatzea joan ahal izatea helburu eder bat da. Bi seme-alaba ditut, bat Lekunberrin bizi da, baina bestea ez dago hemen. Nire etorkizuneko plana beste semea ekartzea da, denak nirekin egotea nahi dut. Zahartzarorako aurrezki batzuk izatea ere gustatuko litzaidake, bai edo bai iristen delako, eta lan egin ezin dudanerako zerbait eduki nahi dut.

### Beste zerbait esan nahi duzu?

Lekunberriko jende guztiari eskerrak eman nahi dizkiot, oso harrera polita egin didatelako. Hemen oso pozik nago, egia esan. Eskerrik asko.

Libia Confort arropa garbitegian



## Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Euskara zerbitzuak, haurrentzako Udako Tailerrak antolatuko ditu aurten. Tailerretan hezitzaile aritzeko deialdia da honako hau

### Izangaien baldintzak

- ▶ 16 urte eginak izatea.
- ▶ Euskaraz, ahoz zein idatziz, ongi moldatzea.
- ▶ Haur eta gaztetxoekin lanean aritzeko gaitasuna izatea.

### Aintzat hartuko dira

- ▶ Euskaraz C1 maila izatea. Hezitzaile titulua izatea.

- ▶ Irakaskuntzan, Pedagogian nahiz Kale Heziketan unibertsitateko titulazioa, erdi nahiz goi mailakoa, izatea edo aisialdi eskola batek egiaztatutako begirale titulua izatea.
- ▶ Haurren aisialdiarekin zerikusia duten ikastaro, tailer, jardunaldi eta antzekoetan parte hartu izana.
- ▶ Lan esperientzia, lan postuarekin zerikusia duena.

### Izen ematea

Deialdian parte hartzeko interesa baduzu, jarri zaitez harremanetan euskara zerbitzuarekin, honako posta helbide elektronikora idatziz:

- ▶ [larbeleareuskaraz@iparmank.eus](mailto:larbeleareuskaraz@iparmank.eus)
- ▶ Izena emateko azken eguna: maiatzak 31



## Adi musika maitalea!

Abesbatza taldean parte hartu nahi duzu? Lucía Ayestarán 18 urtetik gorakoen ahots berriak biltzen ari da taldea osatzeko. Inguruko gazteak elkartu eta musikaren doinuan une zoragarriak pasatzeko garaia da. Lekunberriko udaletxeko Txikiparkean egingo dira klaseak, bertan, betiko euskal kantak eta baita gustuko beste edozer ere abesteko aukera dagoela dio irakasleak. Astean behin, arratsaldean gauzatuko dira klaseak (eguna eta ordua zehazteke). Informazio gehiago nahi baduzu, deitu edo bidali mezu bat 646 703 401 zenbakira. Aitzakiarekin, gazteak elkartu eta ongi pasatzeko unea izango da!



## AGENDA

### MAIATZA

**4** - Sendabelarren inguruko tailerra. Autokarabanen aparkalekutik irtenda, 09:30etan.  
-Farrufest. Batukada taldeen topaketa eta erakustaldia. Ibarberri Eskolan (Lekunberri).

**5** - Bide Berdeen Eguna. Plazaolan, 10:00etan.  
-Farrufest. Batukada taldeen topaketa eta erakustaldia. Ibarberri Eskolan (Lekunberri).

**7** - Guraso eta haurrentzako tailerrak, "Jolasak eta Solasak". Adin tartea: 3-6 urte. Ibarberri Eskolan (Lekunberri), 17:00etatik 18:30etara.

**11** - Aralar Musika Eskola & Tafallako Musika Eskolaren topaketa. Lekunberri, 18:00etan.  
-Kontzertuak: Sua eta Ziraun. Printzan, 22:30etan.

**12** - Ardi Latxaren Enkante Nazionala Gorritin (Larraun).

**17** - Hitzaldia: "Zer da Reikia?". Printzan, 18:00etan.

**18** - Munduko Jolasak. Arruizen, 16:30etan.

**26** - Ttuttureren Mendi Irteera. Euskal Herriko Urmuga. -"Pantailen garaipena" liburuaren aurkezpena, Iñigo Martinez egilearen eskutik. Printzan, 17:00etan.

## MERKATU TXIKIA

**ADMINISTRARI LAN ESKAINTZA LEKUNBERRI** - Mecanizados Mekatech enpresak administrari lan egiteko pertsona bat behar du.

Beharrezkoa da LH II Administrazio eta Finantzetan edo kontabilitatean, edo lanpostu berean 2 urtez egiaztatutako esperientzian izatea.

Interesa izanez gero, bidali zure CV:  
[info@mekatech.es](mailto:info@mekatech.es) edo  
[ironcal@mekatech.es](mailto:ironcal@mekatech.es)



## PUBLIZITATEA MAILOPEN

Labrit Multimedia 948 210 103  
[mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)

**TAXILON** Lontxo Otamendi Artola  
661 202 249  
(9 plaza)  
E-posta: [lotamendi5@gmail.com](mailto:lotamendi5@gmail.com) Atallu - Araitz

serigrafia  
diseinua  
estanzazioa  
[kaixo@gko.eus](mailto:kaixo@gko.eus) 608 228 234

Iñigo Garaioa  
**MARGOLARIA**  
696 658 288  
LEKUNBERRI

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
OGI BERRI  
ORIN ARTISAUAK 948604884



# MAIATZEKO

## Kultur Hilabetea



**17** Liburu aurkezpen musikatua. Nerea Urbizurekin (euskaraz). **18:00**tan Astizko Aterpean.



**25** Gaztetxoentzat mendi erronka. **11:00**tan Astizen.  
-Sendabelarren inguruko tailerra. **11:00**tan Uitzin.  
-Kontzertua. Zinez. 19:00tan Lekunberriko Plazan.



**7** Jolasak & Solasak. Familia eta haurrentzako tailerrak (3-6 urte, euskaraz). Izen-emaitea Euskara Zerbitzuan. **17:00**etan Ibarberri Eskolan (Lekunberri).

**10** Antzerki saioa. Eukalyptus (Jon Ander Aurresti). Geuretik Sortuak proiektuko lana. **18:00**tan Gabari Gune Irekian.

**19** Loreen azoka. **11:00**tan Lekunberriin.

**22** Hitzaldia: Gamazada, batasunaren indarra Xabier Irujorekin (euskaraz). **19:00**tan Gabari Gune Irekian.

**23** Hitzaldi-solasaldia: Kri-si ekosozialaren erdian. Zer gertatuko da? Unai Paskua-lekin. **18:30**tan Gabari Gune Irekian.

**31** Kontzertua. Saizan. **19:00**tan Uitziko Plazan.